

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 750/2019 Erabakia, azaroaren 26koa. Behin betiko onestea Zuiako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzoruaren mugaketa

Urriaren 10eko 514/2019 Foru Aginduaren bidez, behin-behinean onetsi zen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Zuiako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa puntual eta onetsitako zenbait garapen plan direla-eta eguneraketak egiteko gauzatu baitzen.

2019ko azaroaren 15ean, Zuiako Udalak alegazio idatzi bat aurkeztu zuen, udal arkitektoaren txosten batean oinarrituta, eta zenbait zuzenketa egin zitezela proposatu zuen. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak alegazio horien zati bat baietsi du.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. - Onestea, erantsita doazen planoen arabera, ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Zuiako udalerriko hiri lurzoruaren mugaketa, zeina arau subsidiarioetan egindako zenbait aldaketa eta onetsitako zenbait garapen plan direla-eta eguneraketak egiteko gauzatu baitzen.

Bigarrena. - Hori gorabehera, kontuan izan behar da ondasun higiezinaren gaineko zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. - Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak jar ditzaten. Zuiako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikulua 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ